

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arantxa Urretabizkaia Bejarano

*Donostia,
Gipuzkoa
(1947)*

Aurkibidea



Biografia



Loiolako Txominenea etxean jaioa, hiru urte zituenean familia Egia auzora joan zen bizitzera. Guraso biak donostiarrak zituen, aita Egiakoa eta ama Parte Zaharrekoa. Amak Nerecan dendan egiten zuen lana, saltzaile gisa, eta aita itsasontzien administratzailea zen; Saseta batailoiko komisario politikoa izan zen gerra garaian. Hiru senide ziren, bi neska eta mutila. Neskak Villa Toledon ibili ziren mojetan, Egian, eta ondoren Sagrada Familian. Idazkari lanak egiteko trebatuta, Arantxa 16 urterekin hasi zen lanean. Ikasten jarraitu zuen, hala ere: bere kontura egin zituen Batxilergoa, eta baita Geografia eta Historia karrera ere. Kazetari eta idazle ezaguna da, hainbat lanen egilea; "Zergatik Panpox" (1979), besteak beste. Umetako eta gaztetxotako kontuez gainera, 60ko eta 70eko hamarkadetako hainbat kontu aipatu ditu: Lur argitaletxea, Egin egunkaria, euskara batua, kultur giroa...

Zintak

DON-142

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-03-10
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Oruesagasti, Ainitze

DON-143

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-03-10
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

DON-191

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2020-06-17
- **Iraupena:** 95 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Loiolan jaio eta Egian bizi

- **Erref:** DON-142/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:18. **Bukatu:** 00:02:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Txominenea auzoan jaio zen, Loiolan. Hiru urte zituenean Egiara joan ziren bizitzera. Maizterrak ziren izebaren etxean. Guraso biak donostiarrak zituen, aita Egiakoa eta ama parte zaharrekoa baina Bellas Artesen bizitua. Aitona Donostiako orfeoikoa zen.</p>

2. Aitaren lanbidea; arraina eramaten zuen etxera

- **Erref:** DON-142/004
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:04:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Itsasoa » Lehorreko lanak

Laburpena:

Aita administraria zen, autodidakta. Gerra hasi zenean, oposaketak ari zen prestatzen udaleko idazkari izateko, baina bertan behera geratu ziren. Pasaiaiko itsasontziekin lanean aritu zen, eta arrainaren salmentan. Etxera arrain asko eramaten zuen. Orduko hozkailuak.

3. Ama saltzailea zen, eta ez zuen lana utzi

- **Erref:** DON-142/005
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:04:48. **Bukatu:** 00:07:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amak ere lana egiten zuen, garai hartako emakume gehienek ez bezala. 18 urterekin hasi zen, saltzaile denda batean: Casa Nerecan (ikus mapan; gaur egun M&ximo Dutti denda dago). Ez zuen lana utzi. Ahizpa zaharrenaren kargu zegoen etxea. Emakumea izateagatik ezin zituen puntuak kobratu.

4. Servicio Social eta "canastilla"

- **Erref:** DON-142/006
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:07:21. **Bukatu:** 00:10:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Servicio Social egin zuten ahizpa biek, Prim kalean. Pasaportea lortzeko beharrezkoa zen. Jose Antonio Agirre hil zenean, Artzain Onera joan ziren mezetara. Sukaldeko oinarriak ikasten ziren, eta eskulanak. "Canastilla" entregatu beharra. Ohituta zeuden josten: eskolan, egunero bi ordu.

5. Eskola garaia: Egian eta Urdaneta kalean

- **Erref:** DON-142/007
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:10:49. **Bukatu:** 00:13:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Eskola garaia: Egian hasieran, Villa Toledon, eta gero Sagrada Familia, Urdaneta kalean. Teresiarretara eraman nahi zituzten, baina ezin zuten ordaindu. Sagrada Familian mantal zuria eta lazo urdina zituzten, baina uniformerik ez.

6. Franziskotarrekin dotrina eta zinema

- **Erref:** DON-142/009
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:13:45. **Bukatu:** 00:17:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Dotrina frantziskotarrekin ikasten zuten, erdaraz, fraideren batek euskaraz egin arren. Hantxe, lokal batean zinema ere ematen zuten igande arratsaldetan. Pelikula batzuk aipatzen ditu. Fraideen zentsura, eskua jarrita. 50 zentimo. Pepitak erosten zituzten beste pezeta erdiarekin. Zazpi urte zituenean, aita lanik gabe geratu zen. Ahizpa eta biak osaba Nikanorregana bidali zituzten, Pasai Antxora.

7. Umetako oroitzapenak: eskolatik elizara

- **Erref:** DON-142/010
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:17:01. **Bukatu:** 00:20:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Villa Toledo ikastetxean zebileneko oroitzapenak. Aitak Mari Mertxe ontziaren kontuak eramaten zituen, eta diruz ondo zebiltzan. Neska-mutikoak ziren. Ilaran joaten ziren frantziskotarren elizara; nobena osora kale egin ez zuten bakarrak izan zirelako, ardo gozoa eman zieten bi ahizpei. Bartzelonako kongresu eukaristikoa; ahizpa aukeratu zuten Ama Birjinari harrera egiteko.

8. Ahizpak, bata polita eta bestea argia

- **Erref:** DON-142/011
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:20:12. **Bukatu:** 00:22:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Izebak erakutsi zien irakurtzen, etxean. Ahizpa oso polita zen, eta berari argia zela esaten zioten beti. Zazpi urterekin eskolaz aldatzean beldur zen ea hortaz jabetuko ote ziren. Zuregatik espero dutenak bizitzako erabakiak baldintzatzen ditu, oharkabea: unibertsitatera joan zen lehen emakumea izan zen familian.

Transkripzioa

Bestela, guk etxeko izebak erakutsi zigun irakurtzen eskolara jun aurretik, oiñarrikoa, "eme ama".... Baiño nik uste det memoriak gezurrak kontatzen dizkizu. Gogoratzen zea hontaz eta ez hartaz. Ahizpakin askotan gertatzen zaigu hori: berak gogoratzen du gauza bat eta nik beste bat, eta klaro, biyetan elkarrekin geunden, baiñon nik ahaztu det eta berak ez. Gogoan daukat izaten gendula larunbat arratsaldian festa, eta neri pena ematen zian eskolara ez juteak, ni gustora juten nintzan eskolara. Eta axkarra nintzan gaiñea, ta monjak esaten ziaten axkarra nintzala. Eta eskolaz

aldatu giñanian, zazpi urte bete bezain pronto, kezka bat neukan: jabetuko ote ziran eskola berriyan nik azkarra nintzela edo?... Zergatikan nere anai-arrebak biyak izan dira... Ni naiz beltzaran bakarra familian. Anaiak dira rubiyoak eta begi argiyak dituzte, eta hori izan da desgrazi txiki bat txikiyak giñen bitartian. Eta beti esaten zuten "¡Ay! ¡Qué niña más mona" ta ahizpa ta, eta mutila "¡qué guapo!". Eta gero beiratzan ninduten ni eta esaten ziaten beti "qué morenita más salada". Eta aitak esaten zun, "pero es muy lista". Eta sartu zidan hemen lista izan behar hoi eta esaten nun "ta eskola berriyan ez badira jabetzen lista naizenik?". Baiño jabetu zian.

9. Umetan jolas, beti erdaraz; sokasaltoko abestia

- **Erref:** DON-142/013
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:23:01. **Bukatu:** 00:26:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: auzoan, beti erdaraz. Hiru anai-arreba ziren, oso segidakoak. Bera kaniketan ibiltzen zen mutilekin. Villa Toledoko parkean "oroitzapenak" ("rekuerdoak") lurperatzen zituzten; anekdota: mutil batek egin ziona, kaka jarri eta eskua sartzeko esan. Sokasaltoan kantatzen zuten abestia.</p>

10. Klean eta ikasgelan euskararik ez

- **Erref:** DON-142/015
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:26:54. **Bukatu:** 00:28:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Sokasaltoan bi erritmo zeuden: "a bikos", bi buelta. Klean euskararik ez zen entzuten. Eskolara bidean, behin baino gehiagotan gertatu zitzairen euskaraz hitz egiten joan eta norbaitek "eutsi, eutsi" esatea. Ez zuten jakiten ikaskideak euskaldunak ziren ala ez; Arantxa Gurmendiren ahizparekin gertatu zitzairen hori.</p>

Transkripzioa

- Hitz batzuk... osea sokasoltuan ibiltzen giñanian... zeuden bi ritmo; bat matsua eta bestia zan "a bikos". Eta bikos zan bi soka, salto haundiyagoa. "Jugamos a bikos" esanten gendun.
- Eta bestela klean euskeraz ez zan entzuten?
- Ez. Ez zan /etzan/ entzuten. Ahipari ta biyoi gertatu zaigu, ta biyok

daukagu hau finkatua dexente... Noski, etxetikan beste eskolara, Sagrada Familia, beti bide bera egiten genun. Eta goizetan, gu sartzen giñan beatzitan eta ama ere abenidan beatzitan sartzen zan. Ta orduan, iten genun alkarrekin Buen Pastorerraiño. Buen Pastorrean amak bere lanera eta guk Buen Pastorreko atzealdetik Urdaneta kalera. Ta hor, gertatu zaigu behin baiño gehiagotan biyok euskeraz hitz eiten jun, eta jendeak gauzak esan baiñon alde.

- Alde?

- Alde. "Eutsi, eutsi!" ta hola. Ta gero, juten giñan etxera ta esaten genun "gizon baten esan digu eutsi...". Iruitzen zitzaien rarua. Ta bigarren eskola hontan, lehenengoan ere bai zer esanik ez, baiñon gertatu izan zait eskolakide bat auki aldamenean eta jakin ez hura euskalduna zenik gerora beste nunbaitetan topo egin arte. Eta harek ere ez jakin gu euskaldunak giñenik.

- Arantxa Gurmendik komentatu zidan... ez dakit...

- Arantxa Gurmendiren ahizpakin gertatu zitzaigun guri. Jakin ez... Arantxa Gurmendi ni baiñon urtebete zaharragoa da. Zegon nere lehengusu batekin klasean, Korokin. Eta gu geunde bere ahizparekin. Eta jakin ez euskaldunak giñenik.

11. Mojetan, abesti frankistak; diziplina

- **Erref:** DON-142/016
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:31:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Sagrada Familia ikastetxeko kontuak: mojekin formazioan abesti frankistak abesten zituzten. Cara al Sol. Ordurako bazekiten beraiek ez zirela haietakoak. Diziplina ez zen oso zorrotza, baina ondo portatzen zenari "ohorezko banda" ematen zioten sari moduan. Zigor gogorrik ez.</p>

Transkripzioa

- Orduan gaiñera eskola hartan aillatzen giñan goizean ta formatu egiten genun patiyuan, esaten zan, baiño ez zan patiyua, esan nahi det, estalia zan, zan beheko zera bat. Batzutan aillatzen giñanian, gure monjak ziran, zuk ez dituzu ezta ezautuko baiñon ikusten dira argazkitan, zeramakiten zera almidoantu txuri bat izugarriya. Eta goizez xamar aillatzen bagiñan, hantxe egoten ziran monjak almidoiak plantxatzen bere... Gero formatzen genun eta kantatzen genitun abesti frankistak: superiora jartzen zan eskailleretan gora eta hantxen kantatzen genitun danak eskolan hasi baiño lehen. Ta hor hasi giñan nola-hala letrak formatzen ta... "En fin", baiñon bai: "montañas nevadas, banderas al viento, hasta las montañas que encienden mi ser". Dakizkit oraindikan buruz; "cara al sol" eta kantatzen genitun. Baiñon guk ordurako bagenekin gu ez giñala hoietakoak.

- Ta diziplina oso haundiya zan eskola horretan?

- Ez, ez zan eskola nahiko dotorea diziplina handiya izateko, jende xumea

zebillen han eta klaseak... Bai, bazan diziplina, ta adibidez nik beti izan det arazo hori: ni beti izan naiz azkarra baiñan pittin bat lotsagabea ere bai. Ta orduan gu eskola hortan ematen zian urtero bi sari: bat zan "la banda de honor" eta bestia zan "la banda de aplicación". Eta nik "la de aplicación" urtez urte lortzen nun, baiñon "la de honor" ez, zeatikan pittin bat bihurriya nitzan, ez nintzan ba beraiek nahi bezain otzana. Baiñon ez zan oso hola dikiplina exajeratua; jo ez naute sekula santan jo, ez eskola batian ez bestean.

- Hori beste eskola batzutan nahiko ohikoa...

- Bai, bai, guri ez, nik gogoan daukadanik ez. Zigortu bai, baiño zigorrak izaten zian, ba neri beti ba berriketan harrapatzen nindutelako edo, ta orduan esaten ziaten "no hablaré en clase, hay que escribir no hablaré en clase cien veces" eta geo "o quinientas veces, o mil veces". Eta orduan "no hablaré en clase, no hablaré en clase, no hablaré en clase...", " ¡para mañana!", "no hablaré en clase...", bidean ere korrika egin eta paretian jarri "no hablaré en clase, no hablaré en clase...", "zenbat daramat? daramat berrogei", "no hablaré, no no no no hablaré hablaré hablaré...", era guztitakoan ba, ez dakit, nobedade pixkat sartzeko kontuari: hamarna, hamarna, hola kolumnatan... Baiñon jo ta horrelakoak ez. Ez, guk ez.

12. Hamasei urterekin lanean

- **Erref:** DON-142/017
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:31:31. **Bukatu:** 00:34:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Ikasketak etxeko mutilei bakarrik ematea ohikoa zen. Egiako tontorrean, La Sallen ikasi zuen anaiak. Baina bere familia ez zen ohikoa, amak lana egiten zuelako. Ofizio bat (administrari) eman zieten ahizpa biei. 16 urterekin hasi zen lanean, bulego batean. "Sabado ingles". 18rekin bere kabuz hasi zen Batxilergoa egiten.

13. Lana eta ikasi, batera; batxilergoa

- **Erref:** DON-142/018
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:37:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Lan Publikoen Ministerioan egin zuen lana, bere aitaren gogoaren kontra, bi urtean. Ahizpak Starluxen egiten zuen lana. Gero Urnietan egon zen eta

ondoren ospitalean erizain ibili zen zortzi urtean. Bitartean, ikasi ere egiten zuen, batxilergoa, bere aldetik. Latina eta greziera ikastera joaten zen apaiz batengana.

14. Historiako karrera egiten I

- **Erref:** DON-142/019
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:37:03. **Bukatu:** 00:40:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Bartzelonan ikasi zuen Historiako karrera, baina bertara joan gabe, lanean zebilelako. Lagun batek esaten zion zer egiten ari ziren. Gogorra zen biak bateratzea. Eskerrak plan esperimentalak tokatu zitzaion. Pastorelei buruzko lana.

Transkripzioa

- Gero, karrera...

- Eta gero historia egin nun, bai. Bueno, bat: nik latina ta griegoa ta atera nitun, baiñon momentu hartan latina ta griegoa ez zeukaten fakultade bakarrak, letretako fakultade bakarra, zan Bartzelonan. Beste guztiyak zeukaten latina ta griegoa lehenengo urtetan. Orduan Bartzelona latina ta griegoakin ez jarraitzeko. Gero, nere inguruko lagunak ni baiñon gazteagoak, baiñan ikasketak garaiz eginda, zihoazten Bartzelonara; hain zuzen, hura izaten zan nere sasoi hartan etxetik alde egiteko modurik proposena. Bat, hemen ez zegoen unibertsitatetik. Baiñon gero etxetik alde ein beharrean, jendea juten zan kanpora ikastera. Eta orduan haiek zihoazen Bartzelonara, tartean, Ibon Sarasola. Eta ba ez nekin ondo zer egin, egiya esan, ez det ulertzen nola ez nuen kazetaritza aukeratu, zeatikan nere izaera oso aproposa da kazetaritzarako, baiñon ez zegoen nere zerumugan. Ta historia egin nuen ta bukatu nuen. Baiñon oain ez det uste esfuertzo hori egiteko gauza izango nintzanik, zegatikan gogoan daukat primeran: latina adibidez zutik ikasten nun, ze exeritzen banintzan lo hartzen nun, "rosa rosa rosa rosa rose...". Nere gelan ordurako juxtu ahizpa ezkondua zan, milla bederatzirehun ta hirurogeita beatzian ezkondu zan, ta gela neukan neretzat bakarrik. Eta ikasten nun batetikan bestera zutik, ze exerita lo hartzen nun! Egunian zortzi orduko lana iten nun ta jeikitzen nintzan oso goiz eta...

- Karrera in bitartian ere lanian eon ziñan?

- A bai, beti; ez zan aukera bat, ez zegoen beste modurik.

- Orduan Bartzelonara ez ziñen jun? Hemendik etxen?

- Ez, Bartzelonara, baiñon ofizial egin nun, ez nun egin por libre, espiak nitulako, lagun hauek. Ibon baiñon, zuzenian Ibon ez, zegatikan Ibon filologia itera jun zan; baiño bazegoen, oaindikan Donostiyan bizi da, Izaskun Egia izeneko lagun bat, anaia diputazioan dauka, Egia. Bueno, ta hura ai zan historia egiten, ta esaten zian, halako ta hartarako lan bat aurkeztu behar da ez dakit zer, eta juten nintzan. Behin aurkeztu nun lan bat, ez naiz gogoratzen ze asignatura, artearekin zerikusia zeukan. Oso tokatu zitzaidan oso plan esperimentalak eta oso libreka, asignatura aukera libreko asko zeuden momentu hartan, eta egin nuen lan bat pastorelei buruz eta Izaskunek aurkeztu zuen; eta irakaslea, Salvat, irakasleak pasa

zun ez dakit zenbat denbora negatik galdezka klasean aber zeñek egin
zun lan hura pastorelei buruz berari oso interesanteak iruitzen zitzaizkiola.
Ta berak ezautzen zitun pastoralak Arestiren bidez, eta nik fusilatu nuen
Arestiren lan bat pastorelei buruz eta harei iruitu zitzaion oso interesantea.
Baiñon esku zabala zuten.

15. Historiako karrera egiten II

- **Erref:** DON-142/020
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:40:19. **Bukatu:** 00:42:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Historia ikasten ari zen garaiko kontuak. Behin, auto-stopez bueltatu zen Bartzelonatik, Ibon Sarasolarekin; gaupasa eginda joan zen lanera. Bere soldata beharrezkoa zen etxean.

16. Musika, liburuak eta lagun frantsesaren eragina

- **Erref:** DON-142/022
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:42:51. **Bukatu:** 00:47:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Hautzaroan ez zegoen euskarazko kultur girorik. Etxean musikazaleak ziren, orfeoia zela medio. Aitak kartzelan ikasi zuen ingelesez eta alemanez, eta aldizkariak irakurtzen zituen. 16 urterekin saskibaloian aritzen zen, Realeko taldean, eta Bordeleko neska batekin idatzizko harremana hasi zuen. Irakurzaletasuna. Liburuak.</p>

Transkripzioa

- Kultur girua ta garai hartakua...
- Ze garai hartakoa? Hautzaroan ez zegon ezer. Hautzaroan euskeraz adibidez ez zegon ezer. Eta bestela zinea, guretzat kultura zan zinea. Gure aita juten zan, zan Koro Easoko soziyoa, eta gure etxean beti gorde izan da halako zaletasun bat musikarekiko, orfeoia zala ta. Gure ama eta etxeko izeba, ba, haientzat mundua bitan banatzen da: orfeoian ibillitakoak eta orfeoian ibilli gabeak. Kolean gindoazenian esaten zun: "hori orfeoikoa da", edo "hura, haren ama orfeoikoa da". Orfeoia zan gure etxean fundamentala. Ta gero kultur girorik, hola ekintza giro bezela, ez zegon. Gure etxean, klaro, kontua da konpara-puntua nun jartzen dezun. "O sea", gure aitak kartzelan ikasi zun ingelesez eta alemanez eta orduan beti irakurtzen zitun aldizkari inglesak: "live", adibidez; alemana ez hainbeste;

frantsesa... Liburuak zeuden gure etxian, gure aitak hori asko apreziatzen zuen. Eta nik suertea izan nuen hamasei urte nitula, juxtu lanian hasteko momentu horretan, agiyan pixkat lehentxio, nik saskibaloian egiten nun, lehenengo Buen Pastorreko ekipoan eta gero Real Sociadadean. Ditut argazkiyak kamixeta txuri-urdiña jarrita ta, orduan saskibaloia zeukan Realak. Eta behin partido bat jokatu gendun Bordeleko ekipo baten kontra. Lenengoa Donostiyan ta bigarrena Bordelen. Jun giñan Bordeleraíño saskibaloian. Eta han hasi nuen harreman bat idatzizkoa ekipo hartako neska batekin, ni baiñon bost o sei urte zaharragoa izango zana. Eta harreman horrek asko... eragin haundiya izan zuen nereko. Adibidez, neska hura ai zan orduan ikasten espaiñola, "licenciatura de español" Bordeleko fakultatean. Baiñon guk elkarri berak erderaz iten zian ta nik frantsesez; gero azkenian frantsesa egin zan gure hizkuntza. Eta haren bidez hasi zitzaizkidan, nik irakurtzen nun asko, nik betidanik irakurri det asko; amaren ustez gehiegi. Ixkutuan ere irakurri izan det. Batzutan adibidez Baroja, aitak ez zigun Baroja irakurtzen uzten, ta nik Baroja irakurri nahi nuen. Baiñon batzutan zan autorearen arabera, Baroja daukat gogoan, baiñon beste batzutan zan besterik gabe amak esaten zialako bista galduko nula, beti irakurtzen ai naintzala. Ta adibidez, amaren dendan, Nerecanen, saltzen zituzten ere bai liburuak. Eta orduan liburutegirik, liburutegi publikorik, ez dakit zegon, baiño guk ez genun ezagutzen, egongo zan, baiño guk ez gendun bide hori. Eta etxean ere, ba, liburu asko ez zeuden. Eta amak ekartzen zizkidan dendako liburuak eta irakurtzen nitun asko iriki gabe, hola, eta hola gero saldu in behar zialako. Irakurri eta salgai jartzen zun berriz. Eta orduan lagun frantses honen bidez hasi nintzan ezautzen literatura frantsesa eta musika frantsesa garaikidea ere bai. Eta horrek zabaldu zidan dexente ikuspuntu kulturala. Eta gezurra badirudi ere, haren bidez aillatu zitzaizkidan Rubén Darío edo Lope de Vega; klaro, ez zegon hori... Horregatik egin nuen hain aixa batxillergoa, zergatikan nere kultura personalean zeuden gauza asko.

17. Bulego lanetarako prestaketa; euskaraz alfabetatzen

- **Erref:** DON-142/023
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:47:02. **Bukatu:** 00:48:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

13 urterekin lanbide heziketa egin zuten ahizpak eta biek, bulego lanetarako prestatu ziren. Mekanografiaz gainera, frantsesa eta ingelesa ere ikasi zuten. Euskaraz alfabetatzeko, Maria Dolores Agirrerengana joan ziren.

Transkripzioa

Lehen kontatu ez dudana da eskola bukatu, hamahiru urte, eta in genitun bai ahizpak eta bai biok hiru urte "formación profesional"... hezkuntza, lanbide-heziketa. Eta prestatu genuen hiru urtetan gure burua ba bulegoan lan egiteko. Orduan nik oraindikan takigrafia badakit (eskua osoa neukanian nintzan oso mekanografa ona, gero oain ez hain ona), kontabilidadea... Baiño baita frantsesa eta inglesa ere bai. Eta ordurako lagun frantses hau ezautu nuenian, ba nik, ni dexente ondo moldatzen

nintzan frantsesez. Eta horrek zabaldu zian mundu, kultur mundu oso bat. Orduan, gero, euskerari dagokionez, lanian ari nintzala hemezortzi urtetan edo erabaki nuen alfabetatu nahi nuela, zeatikan gure euskera ahozkoa zan, baiñon haurtzaro osoan liburu bakarra izan gendun euskeraz etxian, eta klaro, guk ez genekin irakurtzen euskeraz. Ta hasi giñan ahizpa ta biyok juten, Donostiko konserbatorioan Maria Dolores Agirrek ematen zitun eskola batzuk alfabetatzeko, gipuzkeraz noski, zeatikan orduan euskera ez zegon batua. Eta gero nola ni euskalduna nintzan, ta euskaldun konzszientea, ta euskaltzalea, hori aitag bizkarrian jarri zigun ta horrekin hilko naiz; beste gauza asko kendu ditut aitag eta amak jarritakoa, baiñon hori ez.

18. Euskararen aldeko lanetan; Lur argitaletxea

- **Erref:** DON-142/024
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:48:41. **Bukatu:** 00:52:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Lagun baten bidez hasi zen batxilergoa egiten, eta baita giro euskaltzalera hurbiltzen ere. Ramon Saizarbitoriarekin izan zuen lehen hitzorduan gertatu zitzaiona. Euskara lantzeko taldea osatu zuten. Lur argitaletxearen sorrera.

19. Lur argitaletxeko lanak

- **Erref:** DON-142/025
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:52:38. **Bukatu:** 00:55:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Lur argitaletxeko lehen lanak. Bi sail zituen: literatura eta saiakera. "Mendebaleko ekonomiaren historia" liburua. Ramon Saizarbitoriak liburu zerrenda bat eman zion, lana egiteko. Ibon Sarasolak hizkuntzari buruzko aholkuak ematen zizkion. Frantz Fanonen liburu bat itzuli zuten: "Afrikar iraultzaren alde".

20. H-zalea izateagatik, Egiako ikastolan lana ukatu

- **Erref:** DON-142/026
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:55:39. **Bukatu:** 01:00:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskara batuaz harro dago. H-aren kontua oso mingarria izan zen. Ospitalea utzi zuen, Egiako ikastolan lan egiteko andereño gisa. Ikasturtea hasi aurretik deitu, eta esan zioten ezin zuela han lan egin, h-zalea zelako. Epaiketara eraman zituen.

Transkripzioa

- Ta orain uste det nere belaunaldiak egin duen gauzarik haundina euskeraren batasuna izan dala. Eta uste det gaiñera mendetan ez dula euskarak holako aurrerapausorik eman. Harro nago gerra hartaz, gerra bat izan zan ta.

- Mingarria ere izan zan.

- Izugarri, izan zan izugarri mingarria. Izan zan neretzat gaiñera... Nik utzi nun ospitala ba hurbiltzeko gehiago kultur zeratara. Eta orduan erabaki nuen ba ikastola batian lan egingo nula andereño gisa. Ez neukan oaindikan lizenziatura, baiñon orduan gauza hoiek ez zuten garrantzi haundirik. Eta hasi behar nuen lanian gure auzoko ikastolan, Egiako ikastolan kontratatu ninduten; egon nintzan Bartzelonan ikastaro bat egiten haur txikiak eta ez dakit zer, lagunak nitun andereñoak barra-barra inguruan... "En fin", ni sentitzen nintzan prestatua. Eta kursoa hasi baiñon hamabost egun lehenago edo deitu ziaten juntakoak eta hantxe jun nintzan lasai asko; ezautzen nitun danak, auzokoak zialako, sagardotegikoa, nere txikitako lagun bat... Ta orduan esan ziaten nik ezin nuela han lan egin, zeatikan ni h-zalea nintzala eta h-zaleak espaiñolistak zirala ta ikastola hartan espaiñolistarik ez zala sartuko, ta bota ninduten, eta gelditu nintzan lanik gabe. Eta esan dizudan bezela, lana ez zan neretzat apainketa bat. Lana neretzat ezinbesteko gauza bat zan: juxtu momentu hortan jun nintzan bizitzera, bizi nintzan amarekin ta hor momentu hortan lagun batekin, Maite Berzosarekin, oaindikan lagun daukat. Jun giñan Errenderira biyok pixu bat hartuta bizitzera, eta nik amari pasatzen nion hainbeste laguntzeko, bere soldata ez zan nahiko etxean. Oseake, nik soldatakin mantendu behar nun nere burua eta lagundu behar nion amari anaiak ikasketak bukatu arte; ta etxeko izeba jostuna zan ta nahi dezun guztiya, baiñon ez zeukan jubilazorikan, bakarrikan zeukan lehen ematen zituzten lau xox "no contributivas" edo... "O sea que" ni lanik gabe gelditzea desastre haundiya zan neretzat, baiñon hala gertatu zan ta leporatu ziaten liburu bat itzuli izana: "Euskal berdintasuna" deitzen da, Alfonso Otazuk idatzi zun liburu bat, historia liburu bat holako lodia demostratuz ez zala egiya euskaldunok beti berdiñak izan geala, klaserik ez zegola gure artean, eta demostratuz nola erdi arotik hona ba desberdintasun ekonomikoak egon diran. Ta liburu hura ba nik laburtu nun beste [...], ta orduan izenpetu nun egokitzaile bezela, banekin, nik ez nekin hori idazteko nahiko historia. Eta orduan esan nien "irakurri dezute?", ta esan ziaten "ez, baiñon ikusi bai, eta h-z josia dago". Eta fuera. Eta momentu hartan gertatu zan hori dozena erdi bat lekutan Gipuzkoa osoan. Eta orduan sortu zan mugimendu antzeko bat eta erabaki zan juiziora jun behar gendula, ta salatu behar gendula. Ta jun giñan juiziora, eta nere kasuan defenditu nindun Miguel Castelsek, oaindikan abokatu bezela lan egiten du. Ez nindun defenditu zergatikan ez zun hartu

ezta lana irakurtzeko, molestiya, baiño zan lehenengo aldiya ni juizio batean negona. Eta hantxe aldamenian sagardotegikoa, ta Andresito, ta bestia... Ta haiek esan zuten, utzi ninduten K.O. Haiyek esan zuten ez nindutela bota, kursoa hasi zala ta ez nintzala azaldu, eta a ze faena egin nien, korrika ta presaka beste bat billatu behar izana. Eta gelditu nintzan... Castelsek ez zun jakin nola... Nik esaten nun "no es verdad, no es verdad", baiño ez neukan lekukorik bota nindutenean.

21. Lezoko ikastolan ere arazoak

- **Erref:** DON-142/028
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:00:44. **Bukatu:** 01:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Lezoko ikastolan gertatu zitzaiona. Andereño lanetan hasi zen, eta baratze txiki bat jarri zuen umeekin. Handik ere bota egin zuten. Ikasle baten amak esan ziona. Amak kanpora joatea aholkatu zion, baina ez zen joan. Arestik esan ziona.

Transkripzioa

Hurrengo urtean, Patri Urkizuk lortu zian andereño postu bat Lezoko ikastolan, ta hasi zan kursoa eta ni hasi nintzan umiak. Ta egin nuen lehenengo gauzetako bat zan juxtu gure gela zegoen aurrean egin nun baratza txiki bat. Bueno, ikusten dezu. Eta umiak landatu nitun babarrun batzuk ta babarrunak ditut gogoan, ta beste gauza batzuk ere bai, gero ikusi ahal izateko, en fin, iruditu zitzaidan idea ona. Eta neraman bost o sei egun eta juntak nerekin hitz egin nahi zula. Jun nintzan eta juntan nere ikasle baten ama; ta ordun esan ziaten baillarako billera egin zutela eta han jakin zutela ni bota nindutela Egiako ikastolatik eta beraiek ezin zutela holako bat ikastolan izan eta kanpora. Eta esan nion: "baiño, zure semea nerekin dago, zuk uste dezu gauza arraroren bat egin detela ba?", ezin nuen ulertu, eta esan zidan "ez, hori da okerrera, ze nola jarri dituzun babarrun zera hoiek? ba holakoxea zuk sartzen dezu hazia gure semeengan". Eta gero "a la calle", bigarren aldiz. Eta hor esan nionian amari, amak esan zian: "zoaz kanpora, ze aitari esan nion gauza bera"; kartzeletik ni jaio nintzanian aitari esan omen zion "guazen kanpora zeatikan hemen ezingo degu pakian bizi. Guazen Ameriketara, guazen" asko juten zian orduan. Ta aitak esan omen zion ezetz, "hemen norbaitek gelditu behar du". Eta orduan amak esan zian "zoaz kanpora, zeatikan aitari bezela gertatuko zaizu, ez dizute pakian bizitzen utziko". Eta esan nion "ez noa ba kanpora". Eta holako gauza pillak, oso... Arestik esan zian bigarren aldiz bota nindutenean kontatu nion... Ni jota, klaro, zeatikan lanik gabe negon, ezin nun alkilerra ordaindu, neretzat drama bat zan. Eta Arestik deitzen zian Urretagipuzkoa, txiste bat egiten zun, Urretagipuzkoa, harrek erderaz hitz eiten zun gehienez, idatzi esuskeraz, baiño nahigo zun: "el día que estos que te han echau manden, tú y yo exiliaus a madrid" esan zian. Bera hil zan lehenago eta ni ez naiz exiliatu, ez zun asmatu.

22. Euskara batuaren sorrera eta h-a

- **Erref:** DON-142/030
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 01:03:45. **Bukatu:** 01:08:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

EAJko gehienak h-aren kontra zeuden, eta ezkerrekoak alde. Bere taldean Ibon Sarasolak eta Arestik markatzen zuten bidea. Batasunaren bultzatzaile nagusia Koldo Mitxelena zen, EAJkoa; gutxiengoa zen. Euskara batuak aurrera egiteko, hiru baldintza elkartu ziren. Francoren garaiko mitoak: euskaldunen arteko anaitasuna.

Transkripzioa

- PNVkoak zer ziren, h-aren kontrakoak edo ez zen hola?
- Gehienez bai, gehienez zan ezkerre eta progresistak h-aren alde, eta besteak h-aren kontra, bainon ez zan h-a bakarrik, klaro, h-a zan ikurra. Batzuk batasunaren alde, eta batasunak zeukan h-a Iparraldeko bat eredu gisa hartu genulako, lapurtera, lapurterak zeukalako... hartu genun... Ez, gaizki esaten ari naiz, zeatikan nik ez nuen... nik... Hor markatzen zuten bidea nere taldean Ibon Sarasolak eta Arestik, eta nik ez neukan iritzi propiorik. Neri iruditzen zitzaidan ondo beraiek esaten zutena eta ulertzen nuen euskarak ez zeukala irtenbiderik, batasun bat lortzen ez bazan. Bainon irizpide filologikorik edo linguistikorik nik ez neukan, eta orain ere apenas daukadan. Baina badakit hori lortu izan ez bagenu, ba, euskara galdua zala. Bainan zure erantzuna: hori hala zan. Bainan batasunaren bultzagile nagusia Koldo Mitxelena zan, eta Koldo Mitxelena PNVkoa zan. Orduan, horrek esan nahi du PNVn bazegola gutxiengo luzido bat ulertu zuena batasunik gabe akabo, bainon gero masa kontra zegon. Kontra zegon, hain zuzen, ezkerre alde zegoelako. Ez h-a bai edo h-a ez, zan ezker-eskubi burruka bat. Eta batasunak ein zun aurrera hiru baliabide suertatu zianian. Oaintxe ein det hitzaldi bat, oain dala hilabete eskas, Cervantes-en, Madril-en, eta honi buruz hitz egin det, horregatik daukat hain antolatua diskursoa. Oaintxe lan... prestatu dudalako, bestela ez, e. Bueltak eman behar izan dizkiot. Elkartu ziran hiru baldintza: bat, batasunaren aldeko bultzatzaileen bultzada kulturala, ze literatura hor zegon, antzerkia hor zegon, bultzada kulturala hor zegon, ez beste inon; bi, Euskaltzaindiak, eta Villasante zan buru momentu hortan, Mitxelenaren eragiñez, ulertu zun batasunik gabe ez zegola zer egiñik; eta hiru, Franco hil ta gero, lehenengo erakunde demokratikoak, Garaikoetxearen gobernuak, PNV, bere egin zunian ere irizpide hori. Batasunik gabe ezin zuten funtzionatu. Ezin ziran euskalkiak... ez zegon irakaskuntzarik, ez zegon literaturarik, ez zegon ezer. Eta horregatik, bai, PNV kontra zegon, ezkerre zentzu guztian alde zegon, bainon ez guztiz, zeatikan Mitxelena PNVkoa zan, eta Garaikoetxea PNVkoa zan, bat, hautua egin zuenean batasunaren alde. Baino funtsean zan progresista eta atzerakoien arteko burruka bat. Mitoak dio, eta hori ez da kontatu, mitoak dio, Franco garaian: bat, guztiok giñala antifrankistak -Gezurra, zeatikan minoria bat giñan. Ni kontu hauetan hasi nintzanean, ez zegon ondo ikusitta euskera eta

istilutan sartzea, istilutan sartzea zalako, eta hobe zalako istilutan ez sartu, badaezpadan. Jendea oso eskamatua zegon.-; eta bi, esparru horretan geunden guztion artean anaitasuna zala nagusi, danok bat Francoren kontra. Hori gezurra da. Bai gauza bat eta bai bestea. Gutxi giñan eta gure artean sekulako iskanbilak zeuden. Hori da nik bizi izan dudana realitatea.

- Gutxi eta banatuta.

- Gutxi eta banatuta. Eta ez banatua bakarrik, elkarren kontra; eta azken batean, uste det ez dala oso desberdiña orain, momentu hontan, XXI. mendean gertatzen dena ere. Banaketarako eta elkarren kontrako liskarrerako joera hori ez naiz ni gai esateko nondik datorren, zer dan lehenengo, oilloa ala arrautza, baiñon hori... hortan gera txapeldunak euskaldunak.

23. Astetandik saioa eta garai bateko telebista

- **Erref:** DON-143/001
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Euskal telebistaren sorreran aurkezle gisa aritu zen Arantxa. Astero-astero egiten zuen saioa, umeei. Pare bat erreportai egiten zituen astean.

24. Egin egunkariko kazetari

- **Erref:** DON-143/002
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:04:44. **Bukatu:** 00:08:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Zergatik Panpox idatzi zuenean Egin egunkarian egiten zuen lan kazetari moduan. Azterketa bat egin zioten lana eman aurretik, eta euskara eta mekanografia menderatzeak asko balio izan zion. Administrazio lana eman zioten, eta ondoren erredakziora pasa zen.

25. Bi-hiru erregistrorekin lanean

- **Erref:** DON-143/004
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:11:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Arantxak bi erregistro bere ogibide bilakatu zituen: kazetaritza eta literatura. Hirugarren bat ere aipatzen du, iritziena.

26. Lehenengo idatzia, gaztelaniaz

- **Erref:** DON-143/005
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:11:18. **Bukatu:** 00:14:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Ahizpa eta bera Acción Católicako kide ziren, eta bertako aldzkarian ipuin bat argitaratu zioten, gaztelaniaz. Poesia batzuk ere aurkeztu zituen lehiaketa batera, inori ezer esan gabe, eta irabazi egin zuen lehiaketa.

27. Irakurlegorik ez

- **Erref:** DON-143/007
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:18:07. **Bukatu:** 00:20:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Euskal irakurlegorik ez zen Lur argitaletxea sortu zenean, eta ez zen euskal literatura irakurriko zuen inor.

28. Zentsura pasatzeko prozedura

- **Erref:** DON-143/009
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:21:42. **Bukatu:** 00:23:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Zentsura pasa behar izaten zuten argitaratu ahal izateko. Oinarrizko baimen bat behar zen argitaratu ahal izateko, erantzule bat zuen enpresa bat.

29. Argitaratzeari utzi ziotenekoa

- **Erref:** DON-143/011

- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:25:17. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Argitaratzeari utzi zioten Franco hil baina pixka bat lehenago.

30. Imanol abeslariak Arestik Arantxari emandako poesia kantatu

- **Erref:** DON-143/013
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:27:44. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Arestik Arantxari poesia batzuk eman zizkion, irakur zitzaion, eta honek Imanoli eman zizkion, zeinak hauetako bi musikatu zituen. Kontzertu batean poesiaren egilea agertu zen.</p>

31. Ahizparekin manifestazioetara

- **Erref:** DON-143/014
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:32:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Manifestazioetan gertatuko zenbait kontu komtatzen ditu Arantxak pasarte honetan.

32. Gerraren gaia sekretu bat zen familian

- **Erref:** DON-143/015
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:32:42. **Bukatu:** 00:36:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita gerra garaian kartzelara eraman zuten, komandantea baitzen. Heriotz zigorra zuen honek. Amak gutun bidez ezagutu zuen hau, Burgosko kartzelan zela. "Manzanas" delako batek torturatu zuen. Arantxa jaio zenean kartzelan zen aita. Hala ere, etxean ez zen kontu hauez hitz egiten, ezkutuko gaia zen.

33. Nortasun agiria, obligazio

- **Erref:** DON-143/016
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:36:37. **Bukatu:** 00:39:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aitak ez zuen pasaporterik egin nahi izan bukaera-bukaerara arte.

34. Bilera klandestino

- **Erref:** DON-143/018
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:39:33. **Bukatu:** 00:41:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Hemezortzi bat urterekin bilera klandestino batera joan zen Arantxa, eta ikurrina josi behar zutela jakindakoa bileretara joateri utzi zioten berak eta ahizpak.

35. Argia dantza-taldea

- **Erref:** DON-143/019
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:41:20. **Bukatu:** 00:43:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Ahizparen lankide batek dantza-talde bat sortu eta bertara joaten hasi ziren Arantxa eta ahizpa. Zeruko Argiaren lokalean egiten zuten dantza, Kaputxinoetan.

36. Egia Donostiatik aldenduta

- **Erref:** DON-143/020
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:43:14. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Egia ez zuten Donostiako zati gisa bizi, haientzat Donostia ibaiaren ondoan hasten zen. Oso auzo pobrea zen.

37. Tabakalerako emakumeak

- **Erref:** DON-143/021
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Tabakalerako emakumeek ez zuten ospe onik. Errepublikara garaian emakumeei eskubide asko eman zizkieten oso denbora gutxian, baina askatasun hori gerrarekin desagertu egin zen.

38. Emakumeak ez ziren soilik etxekoandre

- **Erref:** DON-143/022
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:53:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Etxeko lanez gain, beti zuten beste lanen bat. Gerra ondoren etorritako kontua izan zen hori, ezkondukoan lana uztera bultzatzen baitzituzten emakumeak.

39. Garai bateko Egia I

- **Erref:** DON-143/024
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:54:11. **Bukatu:** 00:56:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Burni-lantegi bat eta marmol lantegi bat oroitzen ditu Arantxak Egian.

Militarren presentzia handia zen auzoan, hauen alabak gurdian joaten ziren eskolara.

40. Ogi txuria ogi beltzaren truke

- **Erref:** DON-143/025
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:56:28. **Bukatu:** 00:58:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ogi beltza nahiago zuela eta, izeba-osabei ogi txuria ogi beltzarengatik aldatzen zien Arantxak, eta horregatik barre egiten zioten.

41. Gerraosteko luxuak

- **Erref:** DON-143/026
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:58:37. **Bukatu:** 01:01:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Goserik ez zuten pasa gerraostean. Aitak lana galdu zuenean, luxua zen arrain zopa eta melokotoia jatea.

42. Goserik ez, hotza bai

- **Erref:** DON-143/027
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:01:59. **Bukatu:** 01:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Askotan errepidetik jauzitako ikatz pusketak jasotzen zituzten. Ekonomia zuten sukaldean, eta berotze-sistema bakarra zen hau.

43. Maindireak bainuontzian garbitzen

- **Erref:** DON-143/028
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:04:20. **Bukatu:** 01:07:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Ezohikoa bazen ere, bainuontzia zuten etxean Arantxak eta familiak, eta izebak bertan garbitzen zituen maindireak.

44. Garai bateko Egia II

- **Erref:** DON-143/029
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:07:12. **Bukatu:** 01:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Teila-fabrika, sagardotegia... ditu hizpide.

45. Santu Guztien eguna

- **Erref:** DON-143/030
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:09:21. **Bukatu:** 01:11:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna

Laburpena:

Santu Guztien eguna nola ospatzen zuten azaltzen du Arantxak.

46. Lur argitaletxean, taldetxotik talde nagusira

- **Erref:** DON-191/002
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:02:28. **Bukatu:** 00:04:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Lur argitaletxea sortu zutenean, taldetxoak sortu zituzten interesen arabera. Helburuak bi ziren: euskara batua bera eta edozein gai euskaraz landu zitekeela frogatzea. Taldetxoetatik Joxemi Zumalabe eta biak geratu ziren azkenerako, eta talde nagusira biltzeko gonbita egin zieten. Arantxak jarraitu egin zuen.

47. Lur argitaletxeko kideak

- **Erref:** DON-191/003
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:04:15. **Bukatu:** 00:06:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Liburuak hasieran Zarautzen egiten zituzten, Itxaropenan. Azpiegitura Enrike Villarrek jartzen zuen. Ramon (Saizarbitoria), Ibon (Sarasola) eta bera geratu ziren; Bizkaian Gabriel Aresti eta Quintana.

48. Enrike Villar, garrantzitsua Lur argitaletxean

- **Erref:** DON-191/004
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:06:13. **Bukatu:** 00:07:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Enrike Villarrek azpiegitura jarri zuen Lur argitaletxearentzat. Altzari enpresa zeukan eta oso gizon ekintzailea zela dio. Irakurketa azkarreko metodoaren harira, argitaratzeko baimena lortu zuen Enrikek.

49. Rikardo Arregi

- **Erref:** DON-191/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:10:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Rikardo Arregi apenas ezagutu zuela dio. Ibonek eta Ramonek estimutan zutela esaten du. Rikardoren heriotza. Bi zaldikoa zeukan Arantxak eta horrekin ibiltzen ziren.

50. Idazlea izan nahi zuen txikitatik

- **Erref:** DON-191/007
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:10:22. **Bukatu:** 00:12:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Lur argitaletxean argitaratu zuten lehen literatur lana "Egunero hasten delako" izan zen, Ramon Saizarbitoriarena. Idaztea beti gustatu izan zaio; gogoan du elizan errezatzen zuela idazle izan zedin eskatzeko.

51. Lur argitaletxean zituen zereginak

- **Erref:** DON-191/008
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:12:09. **Bukatu:** 00:13:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Postara joaten ziren, saldutako liburuak bidaltzera; frogak zuzentzen zituzten; euskaraz argitaratzeagatik, diru gehigarria ordaintzen zuten inprentan.

52. Arestik sortutako etena

- **Erref:** DON-191/009
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:13:37. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Auspoa zegoen, Lur argitaletxea baino lehen. Lehenengo argitaletxe laikoa zirela esaten zuten. Arestik etena ekarri zuela dio: beste hizkuntzetan irakurtzen zuten moduko literatura Arestik euskaraz egin zuen.

53. Aresti, literatura garaikidean aitzindaria

- **Erref:** DON-191/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Inguruko hizkuntzetako korrante literarioak hamaraldi batzuk beranduago iristen ziren. Kostunbrismoan geratu zen euskal literatura. Lehenengo haustura, literatura garaikidea bere garaian egitea, Arestik ekarri zuen; harekin batera, Saizarbitoria eta Txilardegiren lanak.

54. Frankismoko zentsura, euskarazko liburuentzat

- **Erref:** DON-191/011
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Ramonek esan zuen "Egunero hasten delako" liburua gazteleraz idatzi izan

balu, ez zela argitaratuko. Liburua eskuz egin eta ministeriora aurkeztu behar izaten zuten, argitaratzeko baimena lortzeko.

55. Saizarbitoriaren, Txilardegiren eta Miranderen lehen lanak

- **Erref:** DON-191/012
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:18:23. **Bukatu:** 00:19:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

"Egunero hasten delako" eta Txilardegiren lehen lanak, garaikideak ziren idazkeraz ere. Jon Miranderen "Haur besoetakoa" eztabaida askoren ondoren argitaratu zela dio.

56. Liburu baten atala zentsuratu zutenekoa

- **Erref:** DON-191/013
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:19:33. **Bukatu:** 00:21:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Arestiri gauza oso itsusia egin ziotela kontatzen du: "Kaniko eta Belxitina" pastoralaren hitzaurrea gustuko ez eta liburu bakoitzari orri hura kendu zioten, zabaldu baino lehen.

57. "Harri eta herri" eredu

- **Erref:** DON-191/015
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:22:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

"Harri eta herri" garaikidea zen, kaletarra eta kultua. Poesia idazten hasi zenean, Arestik egiten zuena egin nahi izan zuen.

58. Euskal literatura nork gaurkotu zuen

- **Erref:** DON-191/017
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:22:35. **Bukatu:** 00:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Gerra galdu zutenen seme-alabek egin zuten etena eta gaurkotu zuten literatura. Pago bonsaiarekin parekatzen du euskal literatura.

59. "San Pedro bezperaren ondokoak" poesia liburuaz

- **Erref:** DON-191/018
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:23:28. **Bukatu:** 00:25:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

"San Pedro bezperaren ondokoak" poesia liburua inori ezer esan gabe idatzi zuen. Taldekideek nahi izan zuten argitaratzea. Gipuzkoa sarira aurkeztu eta irabazi egin zuen. Ordukoa kontatzen du.

60. Zergatik zituen euskal literaturak irakurle gutxi

- **Erref:** DON-191/019
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:25:07. **Bukatu:** 00:26:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Euskarazko liburuak erosten zituzten askok ez zituzten irakurtzen. Euskara batuan irakurtzeko gai zen jende gutxi zegoen. Ziur zeuden ikastoletan sortuko zirela irakurleak.

61. Idazle emakumeen lanak irakurgai betidanik

- **Erref:** DON-191/020
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:26:57. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Bere idazle erreferenteak frantsesak ziren: Simone de Beauvoir, Sartre... Txikitatik irakurri izan ditu idazle emakumeen liburuak. Ez zen egiten ari beste inork egin gabekoa.

62. Kantagintzan eta antzerkian ere, haustura

- **Erref:** DON-191/022
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:29:24. **Bukatu:** 00:31:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Jarrai antzerki taldeak Bertolt Brecht idazlearen eta antzekoen lanak egiten zituen. Baserri girotik Salvador Garmendiaren antzezlan modernora pasatu ziren. Hor ere haustura egon zen. Euskara gorde bakarrik ez, arnasa eman behar zitzaiola argi zeukaten. Kantagintzan berdin gertatu zen.

63. Euskara, gauza zaharra eta saltsatan sartzea zekarrena

- **Erref:** DON-191/026
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:33:09. **Bukatu:** 00:35:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Ikastolak hasita zeuden baina oso esparru txikian, euskararen batasunaren beharra berehala ikusi zuten. Euskara ez zen hiriburuetakoa kontua eta ez zeukan prestigio handirik; gauza zaharra zen eta saltsatan sartzea zekarren.

64. Dena egiteko zegoenez, askatasuna

- **Erref:** DON-191/027
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:35:35. **Bukatu:** 00:37:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Euskal literaturan dena egiteko zegoen. Euskaraz jakin eta alfabetatua izanez gero, edozer egin zitekeen. Askatasun handia ematen zien horrek. Talde sentipena polita izan zela dio.

65. Idazle arruntak izan nahi

- **Erref:** DON-191/029
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:38:09. **Bukatu:** 00:39:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Ramon Saizarbitoriak esaten du idazle arruntak izan nahi zutela. Orain ere literatura idaztetik bizi direnak dozena erdi izango direla dio. Hasi zirenean, idazten zuten gehienak fraideak ziren, eta orain, irakasleak.

66. Ramon Saizarbitorioaren "Ene Jesus"

- **Erref:** DON-191/030
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:39:53. **Bukatu:** 00:42:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Saizarbitorioaren "Ene Jesus" eta "Ehun metro" berritzaileak izan ziren, hala nahita. "Ene Jesus" lanaren bukaeran Juan Jose Lasa psikiatraren lana jasotzen da, "El síndrome de la madre vasca" izenekoa. Oso lasaigarria izan zen.

67. Goiko klasea eta polizia ezin euskaraz jarri

- **Erref:** DON-191/031
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:42:28. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

"Ehun metro" liburuari buruzkoak. Goiko klasearen hizkuntza eta poliziarena euskaraz nola jarri zailtasunak izan dituztela dio.

68. Amatasuna protagonista

- **Erref:** DON-191/035
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:47:18. **Bukatu:** 00:48:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Eider Rodriguezek dio gure idazleek oso ikuspegi ezkorra dutela amatasunari buruz. Arantxak bere buruaz ezetz dio. Azaltzen du hasieran gizonen amak, gero amak, eta gero alaben amak izan direla literaturan protagonista.

69. "Zergatik panpox?" lanaren testuingurua

- **Erref:** DON-191/037
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:50:07. **Bukatu:** 00:52:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

"Zergatik panpox?" zergatik idatzi zuen azaltzen du. Franco hil eta berehala, bere inguruko bikoteak desegiten hasi ziren, gizonak alde egiten zutelako. Askatasun giroa sortu zela dio.

70. "Zergatik panpox?", atera zitzaion moduan

- **Erref:** DON-191/039
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:53:12. **Bukatu:** 00:55:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Senez idazten duela dio. Frantzian debatea zegoen, emakumeek desberdin idazten ote zuten. Ateratzen zitzaiona egiteko gomendatu zion lagun batek eta hala idatzi zuen "Zergatik panpox?".

71. Euskarazko liburuen lehen itzulpenak

- **Erref:** DON-191/044
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:01:50. **Bukatu:** 01:04:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Atxagaren "Obabakoak" eta Arantxaren erdarazko lan bat, "Saturno", batera argitaratu ziren. Mendetan, euskarazko liburuak ez dira beste hizkuntzetara itzuli.

72. Mariasun Landa aitzindari

- **Erref:** DON-191/046
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:04:28. **Bukatu:** 01:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Mariasun Landari buruz hitz egiten du. Bere liburu asko itzuli izan direla dio, Atxagarenak bezala.

73. Kazetari oso berandu

- **Erref:** DON-191/051
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:07:38. **Bukatu:** 01:09:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Zeruko Argian ez zuen parte hartzerik izan. Kazetaritzara oso berandu heldu zela dio. Zertxobait daki gauza askori buruz eta ez daki asko ezeri buruz.

74. Eginen nola hasi zen

- **Erref:** DON-191/053
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:09:39. **Bukatu:** 01:12:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Irakaskuntzan hasi zen eta batuaren aldekoa izatearren bota egin zutela. Lana han-hemenka egin zuen orduan, Ibon Sarasolaren hiztegirako. Eginen sartu zen mekanografia azterketa bat eginda. Andu Lertxundiren eraginez, erredakziora pasatu zen.

75. ETBn haur eta gaztetxoentzako saioa aurkezten

- **Erref:** DON-191/054
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:12:09. **Bukatu:** 01:15:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Argia eta Egunkaria ezinbestekoak izan dira, eta telebista eta irratia geroago ere bai. Horrek frogatu du batuaren aldekoak arrazoi zutela. ETBn saio bat egiten zuen, haur eta gaztetxoei zuzendua. Langile finko bihurtzeko aukera izan zuen baina ez zuen nahi izan.

76. Basarriren bertso-jarriak irratan

- **Erref:** DON-191/059
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:17:19. **Bukatu:** 01:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Ttap aldizkarian kolaboratzen du. Kobazulotik argi betera pasatu garela dio. Irratian "La voz de Gipuzkoa" zegoen, baserritarrei zuzendua. Basarrik bertso-jarriak kantatzen zituen. Maria Dolores Agirre ere irratan aritzen zen.

77. "Hiru Mariak" nobela, zahartzaroaz

- **Erref:** DON-191/062
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 01:20:53. **Bukatu:** 01:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

"Hiru Mariak" nobelari buruz berba egiten du. Zahartzaroari buruzko hausnarketa izan zen. Zahartzaroari buruzko bere ikuspegia azaltzen du.

78. "Bidean ikasia" liburuari egindako kritika

- **Erref:** DON-191/064
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:24:41. **Bukatu:** 01:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Hondarribiko jendeak, ingurukoak, bi kritika egin dizkio bere liburuari: laburregia dela eta bigunegia dela.

79. Parekidetasunean eta euskararen, kobazulotik argira

- **Erref:** DON-191/065
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:25:55. **Bukatu:** 01:28:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

"Zuri-beltzeko argazkiak" liburuari buruzkoak aipatzen ditu. Parekidetasunean, euskararen kasuan moduan, kobazulotik argi betera pasatu gara. Orokortasuna orokortasunarekin eta abangoardia abangoardiarekin konparatu behar direla dio.

80. Parekidetasuna garatzeko dago

- **Erref:** DON-191/066
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 01:28:25. **Bukatu:** 01:32:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Parekidetasunari dagokionean, hainbati oraingo egoera nahikoa iruditzen zaiola uste du. Alardearen kasuan bilatzen dutena da, nahi duenak egin dezala

eta nahi ez duenak ez. Beste hainbat adibide ematen ditu. Bide desberdina aukeratzen duenari uzteko eskatzen du.

81. Parekidetasunerako ausardia

- **Erref:** DON-191/068
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:33:20. **Bukatu:** 01:35:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Iritzia ematen du parekidetasunaz: arazoa ez da bakarrik legearen muga, kontua da ez garela ausartzen. Adinean aurrera joateak askatasuna ematen diola esaten du, berari buruz besteek duten iritziari kasu gutxi egiten diola.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com